



## **LATXA ARRAZAKO GANADUAREN LEHIAKETA**

### **Inskripzioa**

Lehiaketan parte hartu nahi duten ganadutegiek Nafarroako latxa arrazako ardi hazleen elkartean inskribatu beharko dira, abuztuaren 20a baino lehen.

### **Lehiaketa:**

Arrazaren liburu genealogikoan inskribaturiko latxa arrazako animaliek parte hartu ahal izanen dute lehiaketan, betiere genealogia ziurtagiria aurkeztu eta 2016ko eta 2017ko kanpainetan esnearen kontrola egin badute.

### **Sariak**

1. Atal bakoitzeko lehendabizikoarentzat: 150 €
2. Atal bakoitzeko bigarrenarentzat: 100 €
3. Atal bakoitzeko hirugarrenarentzat: 50 €

Ganaduaren kalitatea dela-eta komenigarria dela uste bada, epaimahai kalifikatzaileak beste sari batzuk sortzeko edo batzuk hutsik uzteko proposatu ahal izanen du, baita diplomak edo sari bereziak emateko ere.

